

# 2015 | SAN MIGEL OSPAKIZUNAK ORMAIZTEGIN

## IRAILAK 25, OSTIRALA

**Arratsaldean** ORMAIZTEGIKO VI. BINAKAKO SASI PELOTA  
TXAPELKETAREN FINALA, Zubipe kiroldegian.

**19:00** "36ko GERRA ORMAIZTEGIN" DOKUMENTALAREN  
AURKEZPENA ETA KAFE TERTULIA, Kultur aretoan.

## IRAILAK 26, LARUNBATA

**10:00** MENDI BIZIKLETA PROBA,  
herrian zehar osaturiko ibilbidean.  
**Irteera eta helmuga:** Udaletxe aurrean.  
Amaieran partaideei hamaiketako banatuko zaie eta  
kirol materiala zozketatuko da.  
**Izen ematea:** goizeko 9.30etan Udaletxe aurrean.

**11:45** XXIV. SAN MIGEL TOKA TXAPELKETA HERRIKOIA,  
Muxika egurastokian. Izen-ematea 12:15etan itxiko da.  
**Sariak:** Irabazleari garaikurra eta arkumea. Bigarrenari  
garaikurra eta legatza.

**Ondoren** XX. HARRIKALARI TXAPELKETA HERRIKOIA,  
Berjaldegi zelaian.

**Harriaren pisua:** 2.080 gr.

**Sariak:** Irabazleari  
garaikurra eta harriaren  
pisua txuletetan.  
Bigarrenari garaikurra eta  
harriaren pisua odolkitan.



**16:00 XXV. SAN MIGEL MUS TXAPELKETA** Ormaiztegiko herritarrentzako, eliz atarian. Izen-ematea 16:30etan itxiko da. Bikoteak 10 € ordainduko ditu.

**Sariak:** Bikote irabazleari txapela, garaikurra eta afaria. Bigarren bikoteari garaikurra, gazta eta ardo kaxa.

**16:30 FUTBOL 3**

Ibailde kaleko pistan. Izen ematea 16:00etatik 16:30etara. 16:30etan 10 urtetik aurrerakoan partiduak. 17:30etan 10 urtetik beherakoan partiduak.

**HAURRENTZAKO JOKOAK**

**(Harrikalari jokoa, igela, aurpegiak margotu...)**

Guraso Elkarteak antolatua, udaletxe ondoko enparantzan.

**Jarraian HAURRENTZAKO MERIENDA**

Guraso Elkarteak antolatua, herriko enparantzan.

**17:45 IX. SAN MIGEL PATATA TORTILLA TXAPELKETA,** herriko enparantzan.

Gehienez 10 bikotek parte hartu ahalko dute (lehentasuna izen-ematearen arabera). Sua, zartagiak eta osagarriak bertan banatuko dira.

**Izen-emateak:** irailak 18tik 25era udal liburutegian edo kultura. ormaiztegi@gmail.com-en

**Sariak:** Bikote irabazleari mantalak eta afaria.



**20:15 ARDO KUPELAREN IREKIERA,** Muxika egurastokian.

**21:00 AFARI HERRIKOIA**

Muxika egurastokian.

Herriko tabernetan erosi beharko den afarirako txartelean (2 €) sarrerakoak (odolkia eta txorixo egosia) eta edaria sartzen dira. Gainontzeko jakiak parriletan prestatzeko aukera izango da.

\*Oharra: egunean bertan ezingo da afarirako txartelik erosi.

**Amaieran** \*Norberak bere mahaia garbitu, hondakinak dagokion edukiontzietan sailkatu eta aulkia jaso dezala.

\*Udalaren platerak, edalontziak eta kubiertoak zehaztutako edukiontzietan jaso. MILA ESKER

**Jarraian** Joxe Mendizabalekin **ERROMERIA** izango da.



Ormaiztegiko  
Udala